

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

**CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES**

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Iruñeko Turismo Bulegoak 6.600 pertsonari arreta eman die Sanferminetan

*% 3,51ko igoera izan da iazko datuarekin alderatuz*

Viernes, 15 de julio de 2011

"Nafarroako Erreinua" Turismo Bulegoak guztira 6.600 pertsonari arreta eman die iragan San Fermin jaietan (uztailaren 6tik 14ra). Jatorriari dagokionez, eskatzaileen % 51,02 estatukoak izan dira (3.367), eta % 48.98 beste herrialde batzuetako bisitariak (3.233).

Datu horien arabera, % 3,51ko igoera izan da iazko datuekin alderatuta. Zehazki, estatuko bisitarien artean % 3,57 jaitsi da eta % 12,10 igo atzerritarren artean.

Egunero 733 informazio-eskatzailei arreta eman zaie batez beste. Goizeko 09:00etatik 11:00etara ibili da jende gehien. Hilaren 9ko egunean jaso zen jende-kopuru handiena: 1.101 eskatzaile (658 estatukoak eta 443 atzerrikoak). Jarraian, hurrenkera honetan: uztailak 8 (888 eskatzaile), uztailak 7 (844) eta uztailak 6 (795). 2010. urtearekiko, uztailaren 9an lana nabarmen handitu da, arretak % 48,18 handituz. Beste muturrean, hilaren 14an izan da jende gutxien, 459 eskatzaileekin.

### Herrialdeka eta erkidegoka

Turista atzerritarren artean, frantsesak nabarmendu behar dira (% 19,7); jarraian, estatubatuarak (% 17), australiarrak (% 11) eta britainiarrak. 2010ean, lehen postuan izan ziren: Frantzia, AEB, Italia eta Australia; beraz, aurten eskatzaile italiarrak gutxitu egin dira.

Estatuko eskatzaileei dagokienez, nabarmendu behar dira, hurrenkera honetan: Nafarroa (% 22,3), Bartzelona (% 11,3), Madril (% 10,6), Gipuzkoa (% 6,5), Bizkaia (% 6), Valentzia (% 5,5). Zerrenda hori 2010ekoarekin bat dator.

Jasotako eta arreta emandako eskaerak oinarrizko informazioak ematen oinarritu dira, bereziki: festen egitaraua, hiriko planoak, ostatu hartzea, jatetxeak, erraldoien ibilbidea, eta entzierroa ikusi eta korritzeko gomendioak. Guztira, hiriko 5.000 plano baino gehiago banatu dira eta festei buruzko informazioa duten 3.000 aldizkari. Eskatzaile askok aurten estreinakoz bulegoaren kanpoaldean jarri diren mahai eta aulkiak erabili dituzte planoak eta informazio-liburuxkak kontsultatzeko.